

## EUSKO JAURLARITZA

### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzako  
Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza

*EBAZPENA, Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkarirena, Alpha North Logistics, SL enpresaren hitzarmen kolektiboaren erregistro, gordailu eta argitarapena agintzen duena (20104931012025 kodea).*

#### AURREKARIAK

*Lehenengoa.* 2025eko ekainaren 10ean enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariek sinatu zuten aipatutako hitzarmen kolektiboa.

*Bigarrena.* 2025eko ekainaren 18an aurkeztu zen Lurralde Ordezkaritza honetan, adierazitako hitzarmenaren erregistro, gordailu eta argitalpen eskaera.

*Hirugarrena.* Urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 8. artikulua aurreikusitako errekerimendua burutu (2011-02-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta 2025eko uztailaren 3an bete da.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

*Lehenengoa.* Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskuduntza, lan agintaritzari dagokio, honako arautegiaren arabera: Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen, azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 18.2.g artikulua (2024-11-21eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*); urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua (2011-2-15eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua (2010-6-12ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), hitzarmen eta akordio kolektiboaren erregistro eta gordailuari buruzkoak.

*Bigarrena.* Sinatutako hitzarmen kolektiboak aurretik aipatutako Langileen Estatutuaren Legearen 85, 88, 89 eta 90 artikuluek xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

*Lehenengoa.* Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatzeko eta gordailutzeko, eta aldeei jakinarazteko agindua ematea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko agintzea.

Donostia, 2025eko uztailaren 3a.—Victor Monreal de la Iglesia, lurralde ordezkarria. (5022)

## GOBIERNO VASCO

### DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO

Delegación Territorial de Trabajo y  
Seguridad Social de Gipuzkoa

*RESOLUCIÓN del Delegado Territorial de Trabajo y Seguridad Social, por la que se dispone el registro, publicación y depósito del convenio colectivo de la empresa Alpha North Logistics, S.L. (código 20104931012025).*

#### ANTECEDENTES

*Primero.* El día 10 de junio de 2025, se suscribió el convenio citado por la dirección de empresa y la representación de las personas trabajadoras.

*Segundo.* El día 18 de junio de 2025, se presentó en esta Delegación Territorial solicitud de registro, depósito y publicación del referido convenio.

*Tercero.* Se ha efectuado el requerimiento previsto en el artículo 8 del Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-02-2011), y se ha cumplimentado el 3 de julio de 2025.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

*Primero.* La competencia prevista en el art. 90.2 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre corresponde a esta autoridad laboral de conformidad con el art. 18.2.g del Decreto 323/2024, de 5 de noviembre (*Boletín Oficial del País Vasco* de 21-11-2024) por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Economía, Trabajo y Empleo; en relación con el Decreto 9/2011, de 25 de enero (*Boletín Oficial del País Vasco* de 15-2-2011) y con el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo (*Boletín Oficial del Estado* de 12-6-2010) sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos.

*Segundo.* El convenio colectivo ha sido suscrito de conformidad con los requisitos de los artículos 85, 88, 89 y 90 de la referenciada Ley del Estatuto de los Trabajadores.

En su virtud,

#### RESUELVO

*Primero.* Ordenar su inscripción y depósito en el Registro de Convenios y Acuerdos Colectivos, con notificación a las partes.

*Segundo.* Disponer su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 3 de julio de 2025.—El delegado territorial, Victor Monreal de la Iglesia. (5022)

*Alpha North Logistics, SL enpresaren hitzarmen kolektiboa.*

**1. artikulua.** *Eremu subjektiboa eta lurralde-eremua.*

Hitzarmen honek Alpha North Logistics, SL enpresako Gipuzkoako lantokietan lan egiten duten langileen lan-harremanak arautuko ditu.

**2. artikulua.** *Hitzarmenaren indarraldia eta salaketa.*

1. Hitzarmen hau argitaratzen den egunetik 2026ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, berariaz beste indarraldi bat zehazten den artikuluen kasuan izan ezik. 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera, urtez urte luzatuko da, isilbidez, hitzarmena, betiere legitimazioa duen edozein alderdik berariaz salatzen ez bada. Salaketa hori hasierako indarraldia edo luzapenetako edozein amaitu baino gutxienez hilabete lehenago egin beharko da.

Hitzarmen hau salatzea, berrikustea proposatuz, lan-erakunde eskudunari aurkeztu beharko zaio. Salaketa egin ondoren, salaketaileak hitzarmena sinatu duen beste alderdiari jakinarazi beharko dio salaketa aurkeztu duela, ahalik eta lasterren eta modu frogagarrian.

2. Berariaz hitzartzen da, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenak indarrean jarraituko duela amaiera iragarri ondoren, harik eta bi alderdik hura ordeztuko duen beste bat sinatzen duten arte. Horretarako, hitzarmen kolektibo berri bat negoziatzen hasteko konpromisoa hartu dute alderdiek, salaketa jakinarazi eta gehienez ere laurogeita hamar eguneko epean.

**3. artikulua.** *Osootasunari atxikitzea.*

Hitzarmen kolektibo honetan itundutako edozein baldintza motak osootasun organiko, bateratu eta zatiezina eratzten du; beraz, oro har, kontuan hartu beharko dira, aplikazio praktikoan. Ondorioz, auzitegiek manuren bat balio gabetzat jotzen badute, hitzarmen osoa ondorioz gabe geratuko da, eta berriro negoziatu beharko da osorik.

**4. artikulua.** *Konpentsazioa eta xurgatzea.*

1. Hitzarmen honetan itundutako baldintza ekonomikoak -urtero eta osorik zenbatesten dira- enpresan indarrean daudenekin, langile bakoitzari aplikatu ahal zaizkionekin edo lege-arauek aplikatuta konpentsatu eta xurgatu ahal izango dira, berariaz konpentsatu edo xurgatu ezin diren ordainsari-kontzeptuak izan ezik.

2. Antzinasun-osagarriak, «Erantzukizun-plusa», «Joly bona» edo hitzarmen honetan ezarri ez diren beste osagarri batzuk edo hitzarmen honetan zehaztutako baldintzez bestelako baldintzetan sortzen diren osagarriak jasotzen dituzten langileen ordainsari-kontzeptuak berregituratu egingo dira, eta xurgatu egingo dira taulan zehaztutako oinarriko soldataren barruan kontzeptu horien artean ordaintzen zaizkien zenbatekoak.

**5. artikulua.** *Hitzarmenaren Batzorde Paritarioa.*

1. Hitzarmenaren Batzorde Paritarioa lau kidek osatuko dute, hitzarmena sinatu duten langileen ordezkarien eta enpresaren ordezkarien kopuru berberekin. Alderdiek beharrezkotzat jotzen dituzten aholkulariek ere har dezakete parte Batzordearen bilerean. Hitz egiteko eskubidea izango dute, baina botorik ez. Hauek izango dira Batzorde Paritarioaren eginkizunak:

- Hitzarmen honetan hitzartutakoa betetzen den zaintzea.
- Hitzarmenean desadostasunak eragin ditzaketen klausulak interpretatzea, baita aplikazioan ere.
- Hitzarmen honetan arautzen ez diren gai guztiei buruzko akordioak sustatzea negoziatzeko alderdi legitimatuen artean,

*Convenio colectivo de la empresa Alpha North Logistics, S.L.*

**Artículo 1.** *Ámbito subjetivo y territorial.*

El presente convenio regirá las relaciones de trabajo entre las personas trabajadoras que presten servicios para los centros de trabajo de Alpha North Logistics, S.L., en la provincia de Gipuzkoa.

**Artículo 2.** *Vigencia y denuncia del convenio.*

1. El presente convenio tendrá vigencia desde la fecha de su publicación hasta el 31 de diciembre de 2026, salvo para aquellos artículos en los que se determine expresamente una vigencia distinta, prorrogándose de año en año a partir del 1 de enero de 2027 por tática reconducción siempre y cuando no medie denuncia expresa por cualquiera de las partes legitimadas, la cual deberá formularse con una antelación mínima de un mes al término de su vigencia inicial o al de la de cualquiera de sus prórrogas.

La denuncia de este convenio, proponiendo su revisión, deberá presentarse ante el organismo laboral competente. Una vez efectuada dicha denuncia la parte denunciante deberá notificar a la otra parte firmante del convenio, a la mayor brevedad posible y de forma fehaciente, la presentación de aquella.

2. Se acuerda expresamente, a los efectos de lo dispuesto en artículo 86.3 del Estatuto de los Trabajadores, que, una vez denunciado, se mantendrá la vigencia indefinida de este convenio hasta la suscripción por ambas partes de otro que lo sustituya. A tal efecto las partes se comprometen a iniciar la negociación de un nuevo convenio colectivo en el plazo máximo de los noventa días posteriores a la notificación de la denuncia.

**Artículo 3.** *Vinculación a la totalidad.*

Las condiciones de cualquier clase pactadas en este convenio colectivo forman un todo orgánico, unitario e indivisible, por lo que, a efectos de su aplicación práctica, deberán siempre considerarse de forma global. En consecuencia, si por parte de los tribunales se declarase la nulidad de alguno de sus preceptos, el convenio quedará sin efecto en su totalidad, debiendo ser vuelto a negociar íntegramente.

**Artículo 4.** *Compensación y absorción.*

1. Las condiciones económicas pactadas en el presente convenio, estimadas anualmente y en su totalidad, podrán ser compensadas y absorbidas con las que ríjieran en la empresa o por las que fueran de aplicación a cada persona trabajadora o por aplicación de norma legal, a salvo de aquellos conceptos retributivos para los que expresamente se prevea la no compensación y absorción.

2. En el supuesto de personas trabajadoras que vinieran percibiendo complementos de antigüedad, «Plus responsabilidad», «Bono Joly» u otros no contemplados en este convenio o cuyos requisitos de devengo no coincidan con los definidos en el mismo, se procederá a la reestructuración de sus conceptos retributivos para absorber, dentro del salario base previsto en dichas tablas, las cantidades que se vinieran abonando por tales conceptos.

**Artículo 5.** *Comisión Paritaria del convenio.*

1. La Comisión Paritaria del convenio estará integrada por cuatro vocales, repartidos de forma paritaria entre la parte social y la parte empresarial firmantes del convenio. A las reuniones de la Comisión podrán asistir, con voz pero sin derecho a voto, los asesores que las partes consideren necesarios. Serán funciones de esta Comisión Paritaria:

- La vigilancia del cumplimiento de lo pactado en el Convenio.
- La interpretación de aquellas cláusulas del convenio sobre las que puedan surgir discrepancias, incluso en su aplicación.
- La promoción de acuerdos entre las partes legitimadas para su negociación sobre todas aquellas materias no reguladas

baldin eta, batzordearen iritziz, hitzarmenaren testuan gai horiek txertatu behar badira, une bakoitzean dagoen produkzio- edo lan-errealitatera hobeto egokitzeko.

d) Alderdiak Batzorde Paritarioaren esku jarri dituzten gaiei lotutako bitartekaritza- eta arbitraje-eginkizunak betetzea.

2. Alderdietako edozeinek eskatzen duenean bilduko da Batzorde Paritarioa, gehienez ere, hamabost egun naturaleko epean, dagokion eskaera egiten denetik zenbatzen hasita.

3. Batzorde Paritarioaren erabakiak aho batez hartuko dira edo, bestela, botoen % 75etik gorako gehiengoaz. Erabakiak akta batean labur jasoko dira, eta bilerara bertaratu diren guztiak sinatu beharko dute.

4. Batzorde Paritarioak, eratu eta hurrengo hilabetean, bere funtzionamenduaren erregelamendua idatzi eta onartuko du. Erregelamendu horretan hauek jasoko dira: bilerak egiteko maiztasuna eta modalitatea, gai-zerrenda onartzeko eta aktak egiteko prozedura, akordioak balioduntzat hartzeko eta argitaratzeko prozedura, azpibatzerdeak sortzeko prozedura eta eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako gaiak.

#### 6. artikulua. Lanaren antolamendua.

Lana antolatzea enpresaren eskumen eksklusiboa da. Zuzendaritza- eta kudeaketa-organoei dute haren aplikazio praktikoa egiteko ardura, legeak langileei eta haien legezko ordezkariari aitortzen dizkien eskubide eta eskudantziak eragotzi gabe.

#### 7. artikulua. Kontratazio modalitateak eta kontratuen gutxienezko edukia.

1. Hitzarmenaren eremuko lan-harreman oro idatziz sinatu beharko da, dagokion lan-kontratuaren bidez. Enpresak eta langileak sinatu beharko dute, zerbitzuak ematen hasi aurretik.

2. Lan-kontratuaren, gutxienez, alderdi hauek jaso behar dira:

a) Kontratu mota.

b) Enpresaren izen osoa, izena edo izen soziala, egoitza soziala eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Enpresa pertsona juridikoa bada, edo ordezkari baten bidez jarduten badu, kontratua sinatzen duen mandataria identifikatzeko datu guztiak jaso beharko dira.

c) Langilearen identifikazio osoa: izena, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia adierazita.

d) Langilearen taldea eta funtzioak edo lanbide-kategoria.

f) Kontratuaren iraupena; aukera hauek daude:

1.— Mugagabea, aldizkako kontratu finkoa ere barne.

2.— Aldi baterakoa, Langileen Estatutuaren 11. eta 15. artikuluetan edo aldi baterako kontratazioari aplikatu dakiokkeen beste lan-araudi batean ezarritakoaren arabera.

Langileen Estatutuaren 15.2 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aldi baterako kontratuak egin ahal izango dira ekoizpenaren gorabeherengatik, jardueraren noizbehinkako eta ezusteko gehikuntzari eta gorabeherei erantzuteko, baldin eta gorabehera horiek, enpresaren ohiko jarduera izan arren, aldi baterako desoreka sortzen badute, eskuragarri dagoen enplegu egonkorren eta behar denaren artean.

Kontratu horien gehieneko iraupena sei hilabetekoa izango da. Epe laburragoa betetzeko sinatzen bada, behin bakarrik luzatu ahal izango da, alderdiak hala adosten badute, baina kontratuaren gutzitako iraupenak ezin izango du sei hilabeteko muga hori gainditu.

en el presente convenio y que, a criterio de la Comisión, sea necesario incorporar al texto del mismo para su mejor adaptación a la realidad productiva o laboral existente en cada momento.

d) Ejercer funciones de mediación y arbitraje en las cuestiones sometidas por las partes a su consideración.

2. La Comisión Paritaria se reunirá cuando así lo solicite cualquiera de las partes, en un plazo máximo de quince días naturales desde que se formule la correspondiente petición.

3. Los acuerdos de la Comisión Paritaria se tomarán por unanimidad o, en su defecto, por mayoría de más del 75 por ciento de los votos. Los acuerdos quedarán reflejados de forma sucinta en un acta que habrán de suscribir todos los asistentes a la reunión.

4. La Comisión Paritaria, dentro del mes siguiente a la fecha de su constitución, redactará y aprobará el reglamento de su funcionamiento que recogerá la periodicidad y modalidad de celebración de reuniones, el procedimiento de aprobación del orden del día y de formulación de actas, la validación y publicación de acuerdos, el procedimiento de creación de subcomisiones y cuantos otros asuntos se consideren necesarios para un mejor desarrollo de sus funciones.

#### Artículo 6. Organización del trabajo.

La organización del trabajo es facultad exclusiva de la empresa y su aplicación práctica corresponde a sus órganos directivos y gestores, sin perjuicio de los derechos y atribuciones reconocidos por la ley a las personas trabajadoras y sus representantes legales.

#### Artículo 7. Modalidades de contratación y contenido mínimo de los contratos.

1. Toda relación laboral incluida en el ámbito del convenio deberá formalizarse por escrito a través del correspondiente contrato de trabajo que deberá ser suscrito por la empresa y la persona trabajadora con anterioridad al inicio de la prestación de los servicios.

2. Los contratos de trabajo contendrán, como mínimo, las siguientes menciones:

a) Modalidad de contrato.

b) Razón completa de la empresa, incluyendo su nombre o razón social, domicilio social y número de identificación fiscal. Si la empresa tiene forma de persona jurídica o actúa por medio de representante, deberán constar los datos completos de identificación del mandatario que suscribe el contrato.

c) Identificación completa de la persona trabajadora, incluyendo su nombre, domicilio y número de identificación fiscal.

d) Grupo y funciones o categoría profesional de la persona trabajadora.

f) Plazo de duración del contrato, que podrá ser:

1.— De duración indefinida, incluido el contrato fijo discontinuo.

2.— Temporal, de acuerdo con las previsiones contenidas en los artículos 11 y 15 del Estatuto de los Trabajadores u otra normativa laboral aplicable a la contratación temporal.

A los efectos de lo previsto en el artículo 15.2 del Estatuto de los Trabajadores, se podrán celebrar contratos temporales por circunstancias de la producción para atender el incremento ocasional e imprevisible de la actividad y las oscilaciones, que, aun tratándose de la actividad normal de la empresa, generan un desajuste temporal entre el empleo estable disponible y el que se requiere.

La duración máxima de estos contratos no podrá exceder de seis meses. Si se suscribe por un periodo inferior podrá prorrogarse mediante acuerdo entre las partes, por una única vez, sin que la duración total del contrato supere el indicado límite.

g) Lanaldiaren iraupena, astean lan efektiboko ordu kopuruaren bidez adieraz daiteke, batez beste, hileko zenbaketan.

h) Itundutako ordainsariak.

i) Langileak, oro har eta behin-behinean, zein lantokitan edo jardueratan lan egingo duen.

#### 8. artikulua. Aldizkako kontratu finkoa.

1. Aldizkako kontratu finkoa lanaldi osokoa izango da. Arrunta izan daiteke, urtaroko edo aurrez finkatutako denboraldiko jardueri lotua, edo aldizkako prestazioak emateko, jardueraren garapena faktore aldakorren eta ez-finkoen mende dagoenean, hau da, enpresak edo langileak ez dakitenean zehatz-mehatz noiz hasiko den lana berriro.

2. Aldizkako lan-kontratu finko arrunta idatziz hitzartu behar da, eta hauek jaso behar dira: jardueraren gutxi gorabeherako iraupena, lanaldiaren eta haren ordu-banaketaren gutxi gorabeherako datuak eta jarduera-ziklo bakoitza berriz hastean enpresa-deia egiteko moduari eta ordenari buruzko irizpideak, langileen legezko ordezkariak eta enpresak adostutako «aldizkako langile finkoen lan-poltsari dei egiteko eta hura kudeatzeko akordioan» ezarritakoaren arabera.

3. Nolanahi ere, irizpide objektibo hauek hartuko dira kontratu mota hori duten langileei enpresa-deia egiteko: lehenik eta behin, lanbide-talde edo -kategoriaren arabera eta langileak kontratuan bete behar duen lanpostuaren profil espezifikoa arabera egokituko da; bigarrenik, antzinasuna; hirugarrenik, irizpide geografikoak, eta laugarrenik, aldizkako modalitatearen eta denboraldiko modalitatearen arteko bereizketa. Era berean, beste irizpide gehigarri batzuk ere har daitezke kontratuan.

4. Aldizkako kontratu finko arruntaren mendeko langileei deia egin behar da zehatz jarduera hasi edo berriz hasi baino hamar egun natural lehenago gutxienez; edo bost egun natural lehenago aldizkako kontratu finkoaren kasuan. Deia egiteko ezarritako epea errespetatzen ez bada, lanean hasten ez den pertsonak lan-poltsako ordenari eutsiko dio, eta ez da ulertuko deialdian sartzeko ez-betetzea gertatu denik.

Deialdia idatziz egingo da, eta, gainera, hilean behin aldizkako langile finkoen benetako alden berri emango zaie langileen ordezkariari, halakorik baldin bada.

Berriro lanean hasteko, langileak berriaz eta idatziz jakinarazi behar du prest dagoela, eta zazpi egun naturaleko epean, aldizkako kontratu finko arruntetan, jakinarazpena jasotzen duenetik hasita, eta hiru egun naturaleko epean, aldizkako kontratu finkoetan, idatziz adierazi behar du deialdia onartzen duen edo bertan behera uzten duen. Langileak ez badu berriazko erantzunik ematen aurrez ezarritako epean, deiari uko egin diola joko da.

5. Aldizkako kontratu finko arruntetan, enpresak gutxienez bost egun natural lehenago jakinarazi behar du jarduera etengo duela; eta aldizkako kontratu finkoak badira, hiru egun lehenago. Kasu bietan idatziz jakinarazi behar du.

6. Ondorio horietarako, posta elektronikoa izango da jakinarazpenak egiteko bitarteko baliokidea eta lehentasuneko. Horretarako, enpresak eta langileak kontratazioaren nean jakinarazitako helbide elektronikoak erabiliko dira, eta berriaz jaso behar dira lan-kontratuan. Era berean, WhatsApp edo antzeko berehalako mezularitza-aplikazioen bidez egindako deiei buruzko jakinarazpenak ere egin ahal izango dira, baldin eta langileak kontratazioa egitean berriaz eskatu edo onartu badu.

g) Duración de la jornada de trabajo, que podrá ser indicada en número de horas semanales de trabajo efectivo de promedio en cómputo mensual.

h) Remuneración pactada.

i) Identificación del centro o centros de trabajo o actividades en los que, al menos de forma genérica y provisional, el trabajador prestará sus servicios.

#### Artículo 8. Contrato fijo discontinuo.

1. El contrato fijo discontinuo, que se celebrará a jornada completa, podrá ser ordinario, vinculado a la existencia de actividades estacionales o temporada prefijada, o de prestación intermitente, cuando el desarrollo de la actividad dependa de factores variables y no fijos, de modo que ni la empresa ni la persona trabajadora puedan conocer con exactitud cuándo va a comenzar de nuevo el trabajo.

2. El contrato laboral fijo discontinuo ordinario deberá concertarse por escrito, debiendo figurar en el mismo la indicación sobre la duración estimada de la actividad, una constancia orientativa de la jornada y de su distribución horaria y los criterios sobre la forma y el orden de llamamiento empresarial al reinicio de cada ciclo de actividad, conforme a lo establecido en el correspondiente «Acuerdo de llamamiento y gestión de bolsa de fijos discontinuos» que deberán pactar la representación legal de las personas trabajadoras y la empresa.

3. En todo caso el llamamiento empresarial a las personas trabajadoras sujetas a este tipo de contrato se realizará tomando en consideración los criterios objetivos siguientes: en primer lugar se ajustará no solo al grupo o categoría profesional sino también al perfil específico del puesto de trabajo al que se haya atendido para la contratación de la persona trabajadora y en segundo lugar a la antigüedad, tomando en consideración también criterios geográficos y la distinción entre la modalidad intermitente y la de temporada. Todo ello sin perjuicio de la utilización de otros criterios objetivos adicionales.

4. El llamamiento a las personas afectadas por el contrato fijo discontinuo ordinario deberá producirse con una antelación mínima de diez días naturales, o de cinco días naturales en el caso de contrato fijo discontinuo intermitente, a la fecha de inicio o reanudación de la actividad. Si no se respetase el plazo de llamamiento establecido anteriormente, la persona que no se incorpore conservará su orden de la bolsa y no se considerará que se ha producido un incumplimiento de incorporación al llamamiento.

El llamamiento se efectuará de forma escrita informándose, además, mensualmente de las altas efectivas del personal fijo discontinuo a los representantes de las personas trabajadoras, si los hubiere.

Para su efectiva reincorporación la persona trabajadora deberá notificar su disponibilidad manifestando, expresamente y de forma escrita, su aceptación o desistimiento del llamamiento en el plazo de siete días naturales desde la recepción de la comunicación en los contratos fijos discontinuos ordinarios y de 3 días naturales en los fijos discontinuos intermitentes. En ausencia de respuesta expresa de la persona trabajadora dentro del plazo antes establecido se considerará que se ha declinado el llamamiento.

5. La notificación de cese de actividad por parte de la empresa deberá producirse también con una antelación mínima de cinco días naturales en los contratos fijos discontinuos ordinarios y de tres días en los fijos discontinuos intermitentes, mediante forma escrita.

6. Se considerará, a estos efectos, como medio válido y preferente de notificación el correo electrónico, empleándose a tal fin las respectivas direcciones de correo electrónico facilitadas por la empresa y por la persona trabajadora en el momento de la contratación, las cuales deberán constar expresamente en el contrato de trabajo. Asimismo podrán efectuarse alternativamente las comunicaciones relativas a los llamamientos mediante la aplicación de mensajería instantánea WhatsApp o similar siempre que expresamente así lo haya solicitado o aceptado el trabajador en el momento de su contratación.

#### 9. artikulua. Probaldia.

1. Enpresan sartzen diren langileen probaldia idatziz hitzartuko da beti, eta haxe izango da gehieneko iraupena:

- Teknikari tituludunak (unibertsitateko lizentziadunak eta graduatuak), sei hilabete.
- Erdi-mailako teknikariak (erdi-mailako eta goi-mailako lanbide-heziketa), lau hilabete.
- Gainerako langileak, bi hilabete.

Langileen Estatutuaren 15. artikuluan jasotako iraupen jakinako aldi baterako kontratuei dagokienez, gehienez ere sei hilabeteko kontratuak hitzartu badira, probaldia ezin izango da hila-betik gorakoa izan.

2. Deuseza izango da probaldi bat ezartzen duen ituna, baldin eta langileak, lehenago ere, enpresan eginkizun berdinak bete izan baditu, kontratu-modu hura edozein izanda ere.

3. Probaldiaren zenbaketa eten egingo da langileak aldi baterako ezintasuna badu, jaiotza, adopzioa, adopzio-helburuko zaintza, harrera, haurdunaldiko arriskua, edoskitzaroko arriskua eta genero-indarkeria dela-eta.

4. Probaldia amaitu ondoren, inork atzera egin ez badu, kontratua indarrean jarriko da ondorio guztiekin, eta proban gairotako denbora langilearen antzinasunerako zenbatuko da.

#### 10. artikulua. Langileak dimisioa aurkeztea.

Enpresa borondatez utzi nahi duen langileak idatziz jakinarazi beharko dio enpresari, gutxienez 15 egun lehenago. Langileak bete behar hori betetzen ez badu, enpresak eskubidea izango du jaso beharreko likidaziotik soldata-egun baten zenbatekoa kentzeko, abisua egiteko atzerapen-egun bakoitzeko.

#### 11. artikulua. Lanaldia eta lan-denbora.

1. Lanaldi arruntaren gehieneko iraupena asteko 38 ordukoa izango da, batez beste, hilean.

2. I. talde funtzionaleko II. mailako langileen lanaldia (banatzaileena) antolatzeko, arau hauek ezarri dira:

a) Eguneko benetako lanaldia, Langileen Estatutuaren 34.5 artikuluan adierazitakoaren arabera zenbatuko da, eta bederatzia (9) ordukoa izango da. Asteko lau egunetan egin beharko da. Nolanahi ere, langileak agindutako zerbitzuak bete beharko ditu, nahiz eta zerbitzuak egin bitartean eguneko erreferentzia-lanaldi hori gaintitu, eta lana edo zerbitzua ezin izango du utzi edo atzeratu arrazoi horrengatik. Kasu horietan hileko batez besteko gehieneko lanaldia gaintitzen bada, aparteko ordu gisa zenbatuko da, eta dagozkion baldintzetan konpentsatuko da. Gehieneko lanaldia hileko batezbestekoan osatzen ez bada, hurrengo hilabeteetan ez da lan-denbora hori berreskuratzeko bete beharrik izango.

b) Era berean, eta borondatez, banatzaile horiek asteko bosgarren lanegun bat gehitu ahal izango diote erreferentziako lanaldiari. Egundik «Ibilbideko Errefortzu Plusa» izeneko plus gehigarria jasotzeko eskubidea emango du; eta, hala dagokionean, asteko batez besteko 38 orduko lanaldiaren gaineko soberakina konpentsatuko zaie gehiegiko orduak egin eta hurrengo lau hilabeteetan.

3. Gainerako langileei, hau da, banaketa-arduradunari (I. talde funtzionaleko I. maila) eta egiturako eta administrazioko langileei (II. talde funtzionaleko I. eta II. mailak) artikuluko honen lehen atalean ezarritako gehieneko lanaldi arrunta aplikatuko zaie.

#### Artículo 9. Período de prueba.

1. El período de prueba del personal que ingrese en la empresa se concertará siempre por escrito y tendrá la siguiente duración máxima:

- Técnicos titulados (licenciados y graduados universitarios) seis meses.
- Técnicos intermedios (formación profesional de grado medio y superior) cuatro meses.
- Resto de personas trabajadoras dos meses.

Respecto de los contratos temporales de duración determinada del artículo 15 del Estatuto de los Trabajadores, concertados por tiempo no superior a seis meses, el período de prueba no podrá exceder de un mes.

2. Será nulo el pacto que establezca un período de prueba cuando la persona trabajadora haya ya desempeñado las mismas funciones con anterioridad en la empresa, bajo cualquier modalidad de contratación.

3. El cómputo del período de prueba se interrumpirá si la persona trabajadora se ve afectada por las situaciones de incapacidad temporal, nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción, acogimiento, riesgo durante el embarazo, riesgo durante la lactancia y violencia de género.

4. Transcurrido el período de prueba sin que se haya producido el desistimiento, el contrato producirá plenos efectos, computándose el tiempo de los servicios prestados en la antigüedad de la persona trabajadora en la empresa.

#### Artículo 10. Dimisión de la persona trabajadora.

La persona trabajadora que desee cesar voluntariamente en la empresa deberá ponerlo en conocimiento de ésta, por escrito, con una antelación mínima de 15 días. El incumplimiento de esta obligación por parte de la persona trabajadora dará derecho a la empresa a descontarle, de la liquidación que hubiera de percibir, el importe de un día de salario por cada día de retraso en el preaviso establecido.

#### Artículo 11. Jornada y tiempo de trabajo.

1. La duración máxima de la jornada ordinaria de trabajo será de 38 horas semanales de promedio mensual.

2. Para el personal del Grupo funcional I, nivel II (personal de reparto) la jornada y tiempo de trabajo se ajustará a las siguientes reglas:

a) La jornada diaria efectiva de trabajo de referencia, que se computará de acuerdo con lo indicado en el artículo 34.5 del Estatuto de los trabajadores, será de 9 horas a realizar en cuatro días a la semana. En todo caso, el/la trabajador/a deberá cumplir los servicios encomendados aun cuando con la realización del último o últimos se sobrepase dicha jornada diaria de referencia, sin que pueda por esta causa abandonar el trabajo o demorar el servicio. En dichos supuestos, si se produjera un exceso sobre la jornada máxima promedio mensual, este se computará como hora extraordinaria y será objeto de compensación en los términos correspondientes. En caso de no completarse la jornada máxima en promedio mensual no existirá obligación de recuperar dicho tiempo de trabajo durante los meses siguientes.

b) Asimismo, y de forma voluntaria, dicho Personal de Reparto podrá realizar respecto de la jornada de referencia un quinto día adicional de trabajo semanal que dará derecho a percibir el plus adicional denominado «Plus Refuerzo de Ruta», compensando, en su caso, el exceso sobre el máximo de 38 horas semanales de promedio mensual dentro de los 4 meses siguientes a su realización.

3. Para el resto del personal, esto es, Responsable de Reparto (Grupo funcional I, Nivel I) y Personal de estructura y administración (Grupo funcional II, Niveles I y II) le será de aplicación la jornada máxima ordinaria de trabajo establecida en el apartado primero del presente artículo.

4. Lanaldian 20 minutuko etenaldia egingo da, eta benetako lan-denboratzat hartuko da.

*12. artikulua. Aparteko orduak.*

1. Aparteko ordutzat hartuko dira hitzarmen honetan hileko zenbaketan itundutako benetako lanaldia gaintzen dutenak.

2. Langileek askatasun osoz onartuko edo ukatuko dute aparteko orduak egitea, kasu hauetan izan ezik: Langileen Estatutuaren 35. artikuluko 3. zenbakian jasotako salbuespenean eta, edozein gorabehera dela-eta, eguneko lanaldi arruntean bete gabe utzi diren agindutako zerbitzuak betetzeko lanaldia luzatzea ezinbestekoa denean.

3. Aparteko orduak egin eta hurrengo lau hilabeteetan atse-den-denboraz konpentsatu ahal izango dira, eta, nolana ere, iraupen laburragoko kontratuen kasuan, kontratua amaitu aurretik. Bestela, ordu arruntaren balioaren arabera ordainduko dira, Langileen Estatutuaren 35.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

*13. artikulua. Jaiegunetan lan egitea.*

Lanaldiaren banaketa dela eta, langileak ezin badu Langileen Estatutuaren 37.2 artikuluan aipatzen diren jaiegunetako bat erabili, ordezko atsedinarekin konpentsatuko da, edo uztailaren 28ko 2001/1983 Errege Dekretuaren 47. artikuluan xedatutakoaren arabera ordainduko da.

*14. artikulua. Lanaldiaren erregistroa.*

1. Enpresak eguneroko lanaldiaren erregistroa bermatuko du. Erregistro horretan langile bakoitzak lanaldia hasteko eta amaitzeko ordutegi zehatza jaso beharko da, ezarritako ordutegi-malgutasuna kaltetu gabe.

2. Erabilitako erregistro-sistema, ahal dela, bitarteko edo aplikazio informatikoen bidez egin beharko da, baina ez ditu inoiz urratuko langileek dituzten intimitaterako eskubidea, datu pertsonalak babesteko eskubidea edo indarreko araudiaren arabera eskubide digitalak.

3. Enpresak lau urtez gordeko ditu artikulua honetan aipatzen diren erregistroak, eta denbora horretan langileen, haien legezko ordezkarien eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza-aren eskura egongo dira.

4. Nolanahi ere, erregistro-sistemak benetakotasun-berme egokiak eman beharko ditu, eta datu objektiboak jaso beharko ditu, langileak, dagozkion langileen ordezkariak eta Lan Ikuskaritza-aren erraz egiaztatu ahal izateko. Horrez gain, benetan egindako lanaldiaren erregistroaren laburpen bat ere jasoko du, gehienez ere hilabetekoak diren aldi erregularrak jasota, lanaldia hasteko eta amaitzeko ordutegi zehatza ere adierazita.

*15. artikulua. Baimenak eta lizentziak.*

1. Lanetik joateko baimena har dezake langileak, lansaria jasotzeko eskubidea duela, aldeztatik jakinarazten badu eta justifikatzen badu, arrazoi hauetako bat eta denbora jakin honetarako:

a) Egutegiko hamabost egun, behar bezala formalizatu eta erregistratutako ezkontza denean, edo izateko bikotea legez eratzen denean. Egoera hori egiaztatzeko, ezkontza edo bikotea erregistro ofizialean inskribatu dela ziurtatzeko agiria aurkeztu beharko da. Erregistro ofizialik ez dagoen herrietan ziurtagiri hori ordeztu ahal izango da izateko bikotearen bizikidetzat jasotzen duen notario-aktaren bidez.

b) Bi egun, ezkontzidea, izateko bikotekidea edo odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arteko senidea hiltzen bada.

c) Bost egun, ezkontzidearen, izateko bikotekidearen edo odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren

4. Durante la jornada se establecerá una pausa de 20 minutos, considerada como tiempo de trabajo efectivo.

*Artículo 12. Horas extraordinarias.*

1. Tendrán la consideración de horas extraordinarias aquellas que excedan de la jornada de trabajo efectivo pactada en este convenio en cómputo mensual.

2. Las personas trabajadoras son libres de aceptar o rechazar la realización de horas extraordinarias, a salvo de la excepción contemplada en el apartado 3 del artículo 35 del Estatuto de los Trabajadores y de los supuestos en los que la ampliación de la jornada resulte imprescindible para cumplir los servicios encomendados que, por cualquier incidencia, no hayan podido realizarse dentro de la jornada diaria ordinaria.

3. Las horas extraordinarias podrán ser compensadas por tiempo de descanso dentro de los cuatro meses siguientes a su realización, y en todo caso antes de la finalización del contrato para aquellos contratos de periodos de duración inferior, o bien ser abonadas al valor de la hora ordinaria conforme prevé el artículo 35.1 del Estatuto de los Trabajadores.

*Artículo 13. Trabajo en festivos.*

Cuando la persona trabajadora no pudiera disfrutar de alguno de los festivos a los que se refiere el artículo 37.2 del Estatuto de los Trabajadores, por razón de distribución de la jornada, éste se compensará por descanso alternativo o se abonará según lo dispuesto en el artículo 47 del Real Decreto 2001/1983, de 28 julio.

*Artículo 14. Registro de la jornada.*

1. La empresa garantizará el registro diario de jornada, que deberá incluir el horario concreto de inicio y finalización de la jornada de trabajo de cada persona trabajadora, sin perjuicio de la flexibilidad horaria que se haya establecido.

2. El sistema de registro utilizado, que deberá ser preferentemente mediante medios o aplicaciones informáticas, en momento alguno atentará contra el derecho de las personas trabajadoras a su intimidad, a la protección de datos de carácter personal y los derechos digitales reconocidos en la normativa vigente.

3. La empresa conservará los registros a que se refiere este artículo durante 4 años y permanecerán durante este tiempo a disposición de las personas trabajadoras, de sus representantes legales y de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.

4. En todo caso, el sistema de registro deberá aportar las garantías de autenticidad necesarias, recogiendo datos objetivos y fácilmente verificables en cualquier momento por la persona trabajadora, la representación social en su caso y la Inspección de Trabajo e incluirá un resumen del registro de la jornada diaria efectivamente desempeñada, por periodos regulares no superiores a un mes, en el que conste el detalle del horario concreto de inicio y finalización de la misma.

*Artículo 15. Permisos y licencias.*

1. La persona trabajadora, previo aviso y justificación, podrá ausentarse del trabajo, con derecho a retribución, por alguno de los motivos y por el tiempo siguiente:

a) Quince días naturales en caso de matrimonio o constitución legal como pareja de hecho debidamente formalizada y registrada, debiéndose acreditar estos extremos mediante la certificación de inscripción del matrimonio o de la pareja en el correspondiente registro oficial. Dicha certificación podrá sustituirse, en aquellas poblaciones donde no exista registro oficial, mediante acta notarial que recoja la circunstancia de convivencia de la pareja de hecho.

b) Dos días por el fallecimiento del cónyuge, pareja de hecho o parientes hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad.

c) Cinco días por accidente o enfermedad graves, hospitalización o intervención quirúrgica sin hospitalización que precise

mailarainoko ahaideen (izatezko bikotearen odol-ahaidetasunezko ahaidea barne) istripu edo gaixotasun larriagatik, ospitalerazteagatik edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ospitalerazterik gabeko ebakuntza kirurgikoagatik, bai eta aurrekoak ez diren beste pertsona batzuen kasuan ere, baldin eta langilearekin etxebizitza berean bizi badira eta haiek benetan zaindu behar badira.

d) Aurreko b) eta c) kasuetan, langileak joan-etorriko bidaia bakoitzeko 200 kilometro edo gehiagoko bidaia egin behar badu, baimenak bi egun eta egun bat gehiago luzatuko dira, hurrenez hurren.

e) Ohiko bizilekuz aldatzeagatik, egun natural bat.

f) Egund natural bat, gidatzeko baimena berritzeko.

g) Beharrezkoa den denbora, nahitaezko betebeharrak publiko eta pertsonal bat betetzeko. Aipatutako betebeharrak hiru hilabete epean lanorduen ehuneko 20 baino gehiago betetzea eragozten badu, enpresak nahitaezko eszedentzia-egoerara pasatu ahal izango du langile hori, eta lanpostua berreskuratzeko eskubidea izango du, betebeharrak publiko eta pertsonala betetzeko betebeharrak amaitzen denean. Eginbeharrak betetzeagatik edo karguan jarduteagatik langileak kalte-ordaina jasotzen badu, enpresan duen soldatetik deskontatuko zaio ordain horren diruzenbatekoa.

h) Sindikatu- edo ordezkari-eginkizunak betetzeko, Lege eta hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.

i) Azterketak egitera joateko behar duen denbora, langileak titulazio ofizialak lortzeko prestakuntza arautua egiten badu; eta, gehienez ere, urtean 12 azterketa ofizial egiteko.

j) Lanera ez joateko eskubidea, gaixotasuna edo istripua dela-eta, langileak beste leku batera joan behar badu senideekin edo bizikideekin zerikusia duten premiazko familia-arrazoiengatik. Arrazoi horren ondoriozko absentzia-orduak urtean lau egunen baliokideak izango dira, eta absentziaren arrazoia egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte langileak.

k) Lau egun gehienez, lantokira joan ezin bada edo lantokira joateko behar diren zirkulazio-bideetatik ibili ezin bada agintari eskudunek joan-etorrietarako ezarritako gomendioen, mugen edo debekuen ondorioz, bai eta arrisku larri eta hur-hurrekoa dagoenean ere, hondamendi edo fenomeno meteorologiko kaltegarri baten ondoriozkoak barne. Lau egun horiek igaro ondoren, baimena luzatu egingo da baimena justifikatu zuten inguruabarrak desagertu arte, hargatik eragotzi gabe enpresak lan-kontratua eteteko edo ezinbesteko kausa baten ondoriozko lanaldi-murrizketa aplikatzeko aukera, 47.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lan-prestazioaren izaera urrutiko lanarekin bateragarria den eta komunikazio-sareen egoerak lana egiteko aukera ematen duenean, enpresak hura ezarri ahal izango du, Urrutiko Lanari buruzko uztailaren 9ko 10/2021 Legean jasotako gainerako betebeharrak formal eta materialak betez, eta, bereziki, bitarteko, ekipa eta tresna egokiak emanez.

2. Senar-emazteentzat hitzarmen honek biltzen dituen eskubide berberak onartzen zaizkie haien artean ezkondu ez direnei, baina lotura afektibo, gaizkor eta iraunkorrean bizi diren pertsonen, alde aurretik egiaztatuta dagoen izatezko bikoteen erregistro ofizialean izena eman badute, hori egiaztatzen duen ziurtagiri bidez. Erregistro ofizialik ez dagoen herrietan ziurtagiri hori ordeztu ahal izango da izatezko bikotearen bizikidetzat jasotzen duen notario-aktaren bidez.

#### 16. artikulua. Oporrak.

Urteko ordainpeko oporraldia hogeita hamaika egun naturalakoa da, eta langileek ezin dute eskatu ordezkari konpentsazio ekonomikorik.

reposo domiciliario del cónyuge, pareja de hecho o parientes hasta el segundo grado por consanguinidad o afinidad, incluido el familiar consanguíneo de la pareja de hecho, así como de cualquier otra persona distinta de las anteriores, que conviva con la persona trabajadora en el mismo domicilio y que requiera el cuidado efectivo de aquella.

d) En los supuestos b) y c) anteriores, cuando se necesite hacer un desplazamiento de 200 kilómetros o más por cada uno de los viajes de ida y vuelta, los permisos se ampliarán en dos días y un día más, respectivamente.

e) Un día natural por traslado del domicilio habitual.

f) Un día natural para la renovación del permiso de conducción.

g) Por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público y personal. Cuando el cumplimiento del deber antes referido suponga la imposibilidad de la prestación del trabajo debido en más del 20 por ciento de las horas laborables en un período de 3 meses, podrá la empresa pasar a la persona trabajadora afectada a la situación de excedencia forzosa con derecho a recuperación del puesto de trabajo cuando finalice la obligación del cumplimiento del deber de carácter público y personal. En el supuesto de que la persona trabajadora, por cumplimiento del deber o desempeño del cargo perciba una indemnización, se descontará el importe de la misma del salario a que tuviera derecho en la empresa.

h) Para realizar funciones sindicales o de representación en los términos establecidos en la Ley y en el presente convenio.

